



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DPTO. DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

E.A.B.H.E.M. EUSKARA MAILA NEURTZEKO TESTA



G. Ajuria

J. Ibarra

Koordinatzailea: J. Sierra

.361:37

16

Euskara-Zerbitzua
Glotodidaktika-lanak

GLOTODIDAKTIKA-LANAK 16



Lankideak: G. Ajuria - J. Ibarra
Kordinatzaile: J. Sierra
© Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Lehendakaritza Saila
Eusko Jaurlaritza
ISBN: 84-7542-008-7
Legezko gordailua: VI-23-84
Lehenengo Argitaraldia: 1984ko Ekaina
Inprimatzailea: Gráficas Santamaría, S.A. - Vitoria-Gasteiz

Lankideak: G. Ajuria - J. Ibarra
Koordinatzaile: J. Sierra

**«ESKOLAURRE BUKAERAKO
HAURREN EUSKARA MAILA»
NEURTZEKO TESTA.**



Gasteiz 1984

AURKIBIDEA

	<u>Orrialdea</u>
AURKEZPENA	7
HITZAURREA	9
AURKEZPENA	11
MATERIALA	19
DATU ESTATISTIKOAK	29
KORRELAZIOAK	37
ANALISI FAKTORIALA	39
ALDAGAIEN ERAGINA	52
ERANSKINA	83
KONKLUSIO GISA	89
TAULAK	91
BIBLIOGRAFIA	100

AURKEZPENA

Badirudi euskara maila neurtzeko saioak gero eta sendoagoak direla. Kezka hori ikastoletan sortu zen lehenik, eta Eskolaurrean indartu da batez ere, ikastegi eta ikasmaila horietan planteatzen bait zen gogorrenik haur erdaldunak euskalduntzearen problematika. Urteetan ibili dira zenbait irakasle horrelako lanetan, behar hainbat denbora ez zutelarik eta behar bezalako prestakuntza jasotzeko aukerarik gabe. Zorionez ahalegin guzti horien lehen fruitu helduen garaia iritsi da eta oinarri zientifikoko ikerketak ari zaizkigu loratzen. Honako hau argitaratzen den lehenengoa da, oker ez bagaude, eta beste hainbat ere aski aurrerratuak dira jadanik. "Eskolaurre bukaerako haurren euskara maila" (E.A.B.H.E.M.) izeneko test honetan bi ikasturtetako lanak biltzen dira, eta Unibertsitate Sailordetzak Bizkaiko Ikastolen Elkarteari emandako diru-laguntzari esker burutu ahal izan da.

Egin den baremazioa Bizkaiko D ereduko datuen gainean (1982-83 ikasturtekoak, hain xuxen) egina da, eta beraz bertarako balio du batez ere, baina beste lurraldeetan aplikatzeko ere ez dugu uste aldeak handiegiak direnik. Gipuzkoan egin diren probak behintzat hori adierazteko bidean doaz. Halere aurrerantzean baliteke Gipuzkoarako baremazio berezi bat egitea, beharrak hala agindu eta denborak permititzen badu behintzat.

Liburu honetan ematen direnak ikerketaren azalpenak besterik ez dira. Testa aplikatu nahi duenak salgai dauzka irudiak eta koadernilloak ere. Eskola munduan orain arte egindako euskalduntzen lanen emaitzak neurtzeko eta hemendik aurrerako helburuak behar bezala finkatzeko baliagarri izan dakigula.

HITZAURREA

Aspaldikoa da gure haurren euskara maila neurtuko lukeen tresna baten premia. Ikastolek, jo eta ke ekin diote haurren euskalduntzeari, urteetan zehar.

Egun, eta zorionez, eskolak ere sartu zaizkigu funtsezko lan honetan. Baina zer lortzen ari gara?

Ikastoletan lan egin dugun psikologo batzu, gogo biziz genbiltzan, test bat, Hizkuntzako Test bat egitearen atzetik.

BIZKAIKO IKASTOLEN ELKARTEAREN zorioneko babesaren aprobetxatuz, esku hutsik murgildu ginen tamaina honetako proiektuan.

EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA ETA UNIBERTSITATE SAILARI beka bat eskatu eta lortu ere egin genuen. Ez zen beraz gehiagorik behar, adorea eta ahalmena baizik.

Hasiera hasieratik, ezer gutxi genekielako konturatu ginen, baina ausardiarik ez zitzaigun falta eta... horra hor mila hankasartze, estualdi eta hutsune.

Ezinezkoa gertatuko zen, eduki dugun laguntza mirezgarria izan ez bagenu. Azkenik, zer atera dugun? Euskara maila neurtzeko tresnatxo bat.

Kaskarra baina tresna, urria baina erreal. Ezer ez baino gehiago delakoan gaude.

Hutsune eta falloak barkatu eta hobe bat egiten saia zaitezte. Hemen duzue erreferentzia bat.

Tresna hau, ohartu behar, Bizkaiko Ikastolen errealitatean errotuta dago. Bizkaiko ikastolez hitzegin nahi du gure testak, oraingoz.

Ez dezala inork jeneralizazio gaitzik egin, ez du ezertarako balio eta. Aurrerantzean baremoak hedatu daitezkeela? Ikusiko dugu. Lehenik, jendearen harrera era iritzi kritikoak jasan beharko ditugu, gure lan apal hau hobetzeko.

Gauza guztietan bezala, Test hau egiteko zirt edo zart egin behar izan dugu, arlo askotan.

Geure aukerak dira. Batzu guztiz "arbitrarioak" jakina.

Mundu guztiak ez du zertan ados egon behar, baina erabilitako erizpideak garbi azaltzen ahalegindu gara, aipatutakoaz ohartarazteko.

Guzti hori, aurrerago ikusiko duzue, baina ez genuke zintzo jokatu, izan ditugun laguntzak eskertuko ez bagenu.

Gure lanean dena erraztasunak izan direla aitortzean ez dugu gezurrik esaten.

Bizkaiko Ikastolek, etxeakoak bezala onartu gintuzten eta interesik handienez jarraitu izan dute beraiei zuzendutako lan hau, ikastolarik gabe, ez bait legoke estudio hau egin beharrik ere. Gure eskerrik beroenak benetan.

Halaber, gu hiruron jakituria eskasa dela medio, ez zen inoiz testa bukatuko, inguratu gaituzten teknikari bikainengatik izan ez balitz.

Lehendabizi, ANGELES IZTUETA estatistikari adiskidea aipatu behar, lan honen benetako "arima" gertatu bait da. Berari esker dakigu estatistikaz dakigun apurra. Bere laguntzaz burutu ahal izan dugu eskutan duzun hau. Esker mila izan duen interesa eta patxadagatik eta ez dugu erraz "askatuko", ezinbestekoa bait zaigu bere aholkuz kontatzea.

Bigarrenik, ANA IRAZABAL psikologiarekin gaude zorretan. Profesionaltasun handiz parte hartu zuen hasierako prozesuan, projektuan oso osorik sartuz. Eskerrik asko Ana.

Ezin ahaztu Informatikarien lana eta haien artean, MIKEL OTXOA laguna. Eskerrikasko hire prestasuna eta interesagatik.

Valladolideko Unibertsitateko JAVIER GALLEGORI ere gure eskerrona egindako lanagatik. Eta, ezin ahaztu, JOSU JURRAMENDI.

Ez zaigu posible, laguntzaile guztien izenak aipatzea ere, baina zuzenki edo zeharbidez lan hau posible egin duzuen guztion interesik gabeko emaitza eskertu nahi genizueke.

E.A.B.H.E.M. TESTAREN AURKEZPENA

Bizkaiko Ikastolen Elkartearen inguruan zegoen Psikologoaren taldeak hartu zuen haurren euskara maila neurtzeko asmoa.

Aspaldiko arazoa zen bestalde euskara mailaren neurketarena. Gure euskalduntze lanaren fruituak ebaluatu nahi ditugu, eta bide batez, hainbat ikerlan egiteko, horrelako tresna bat beharrezkoa genuen.

Duela bi urte hasita, hiru pertsona ibili gara talde lanean, BIZKAIKO IKASTOLEN ELKARTEAREN babespean eta EUSKO JAURLARITZAREN laguntzaz.

PAUSOAK

Egin dugun testa, zenbait ikastolatan erabiltzen ziren probetan oinarrituta dago.

Lehenengo eta behin, helburua argi genuelarik, materiala eta ipuinak sortzea izan zen gure zeregina.

Ondoren, Eskolaurreko programaketak arakaturik, lexikoa eta ipuinen hizkuntza maila egokitzeari ekin genion. Hizkuntzari dagokionez, JON AJURIAren aholkua izan genuen hasiera bateko momentuetan.

Behin behineko material honekin, pretest bat egin ondoren, aldaketak sartu genituen. Ikastola batzutan probatu zen pretest hau (100 kasu baino gehiago). Ondoren, bidezko aldaketak eginik.

82-83 ikasturtearen hasieran, BAREMAZIOA zen gure xedea, mailaketa bat eskaintzea, konparaketak egin ahal izateko alegia.

Projektuak aurrera egin zuen. Ikastolei idatzi gure asmoen berri emanez eta inkesta bat ere banatu genien, familien ezaugarrien bidez, aldagaien pisua aztertzeko. Irakasleei ere inkesta bat pasa zitzaion.

Galdeketa, ordenagailuan sartu genituen, informazioa prozesatzeko.

PROJEKTUA BERA

Bost urteko haurren euskara maila ezagutu nahian, 6 eskualdetako 9 ikastolatako 252 ume aztertuak izan dira gure testaz.

Aukeraketa, ez da zoriz egin, SIADECO-k eginiko estudioan agertzen diren UDALERRIEN EUSKARA PORTZENTAETAN oinarrituta baino. Udal-erri euskaldunenetik, erdaldunenenera beraz (1).

(1) SIADECO. "Hizkuntz Borroka Euskal Herrian" Euskaltzaindia. Bilbo 1979.

Gure hipotesian, eskualde euskaldunetako haurrek, erdaldunetakoek baino puntuazio altuagoak atera behar lituzkete Hizkuntzako testean.

ESKUALDEAK	IKASTOLAK	EUSKARAREN %
LEA ARTIBAI	Lekeitio Ondarroa	80-100
GERNIKA	Gernika	60-80
ZORNOTZA	Zornotza	40-60
DURANGO	Durango	20-40
GALDAKAO	Galdakao	0-20
ENKARTERRIA	Trapaga Muskiz Balmaseda	0

Alde batetik, "D" ereduko ikastolak hartu nahi izan ditugu. Baliteke hala ere, errealitatean, gora behera batzu egotea, euskararen denborari dagokionez. Ikastola batetan, hain zuzen, haurrak erdal ikastetxera doaz eskolaurrea bukatzerakoan eta beraz, azken kurtsoan ez omen dute dena euskara hutsez egiten.

HAURRAK

AHAL DEN TALDERIK HOMOGENEOENA egitea izan da gure asmoa. Oso problematikoak baztertu egin ditugu eta ume asko zeuden tokian, errealitatean ematen diren portzentaien arauera hautatzeko erregutu diegu irakasleei. Adibidez, euskaldunak-erdaldunak, motelak-azkarrak... e.a.

PASAKETA

Lau pasatzaileraren artean egin da. Aurretik, entrenamendu bat izan zen, trebetasunez jabetzeko. Hiru gizonezko eta emakumezko bat ginen.

Esan beharreko kontsignak edo aginduak, bateratu ondoren, pasatzeari ekin genion. Lan hau, kurtso bukaeran izan zedin, MAIATZean izan zen, orduantxe bukatzen bait zuten haurrek eskolaurreko prozesua.

METODOLOGIA

Banan banan pasatu dira testak. Aurretik, haurren geletan egonaz, ezagunak izateko eta "blokeoak" hautsi nahian. Hala ere, zeharo blokeatzen ziren haurrak baztertu egin genituen.

Testean emandako erantzunak idatzi eta grabatu egin genituen, haurren emaitzak hutsik gabe jasotzeko.

ZUZENKETA

Bakoitzak, berak pasatutako testak zuzendu zituen eta ondoren denok elkarrekin berriro.

ESTATISTIKA

Ez genuen, zoritxarrez tekniko batekin kontatu hasieratik eta, ustegabeko "abentura" batetan sartu ginen. Gure medio urriez baliatuz, zelan edo halan moldatu gara, baina ez da nahikoa izan. Zorionez, estatistikan aditua eta jakintsua den MARIA ANGELES IZTUETArekin kontaktatzeko suertea izan dugu. Bere gidaritzapean, aurretik eginiko guztia irauli eta hobetu egin dugu.

Datuen analisirako, "SPSS" "paketea" erabili dugu, Valladolideko Unibertsitateko "Centro de Cálculo" delakoan, Javier Gallegoren laguntzaz (2).

TESTA

Berez, lau atal edo azpittest ditu: LEXIKOA, IPUIN ERREPIKAPENA, GALDERAK, eta IPUIN ASMATUA.

Azpittest bakoitzak, zera neurtu nahi du:

Lexikoa: Berak adierazten duenez, eskolaurrean zehar jasotako lexikoa.

Ipuin errepikapena: Ulermena eta, nolabait, adierazpena (mintzamen-
na).

Galderak: Ulermena.

Ipuin asmaturia: Adierazpena (mintzamen-
na).

ADIERAZPENAZ edo adierazteko gaitasunaz, zenbait ohar egin beharko genituzke.

Hizkuntzaren Neurketak, baditu, izan ere, arazo teoriko frango.

Hizkuntza sailkatzea, zatikatzearen arriskua batetik eta Hizkuntza bere osotasunean eta freskotasunean hartzeko zailtasuna dira auziaren puntu batzu.

Objetiboegi neurtu nahian, sailkapenak eta zatiketak eginez, hainbat arlo galtzen dira: jatorritasuna, jariatortasuna, erraztasuna eta abar. Aitzitik, orokorregia baldin bada neurketa hau, oso zaila, ia ezinezkoa zaigu kriterio objetibo bat aurkitzea ebaluatzeko orduan.

Hoberena, agian, erdiko bidea liteke. Bi indizeak txertatuz, objetibotasuna eta osotasuna kontutan hartzea.

(2) Ikus SPSSren deskribapen bat euskaraz: K. Fernández. "Estatistikaren Hastapenak", Eranskina. Udako Euskal Unibertsitateak argitaratua. Bilbo 1983.

Guk, egia esan, ez dugu jakin nola integratu jariakortasuna, jatortasuna... eta kontzeptu iheskor horien ebaluaketa, nahiz eta bere premia sentitu.

Hautatu dugun bidea, beraz, ez da idealena. Behar bada, test psikologikoen eragina handia izan da guregan. Egin dugun sailkapena, honako hau da: Lehendabizi, ESALDIA edo PERPAUSAK aztertu ditugu, –geure erara– zenbat elementuz osotzen diren eta nolako estrukturaz ikusiz. Atal guztietan, noski, ongi edo gaizki eginak diren bereiztu dugu.

Bigarrenez, aditza. Zein moeta eta nola erabiliak diren.

Hirugarren, Deklinabidea, batez ere, NORK kasua azpimarratuz.

Ondoren, IZENAK eta ADJETIBO zein ADBERBIOAK ebaluatzen dira.

Zergatik ebaluatu dugu gauza bat honela eta beste bat bestela?

Ez dago kasu guztietan arrazoi zehatzik. Nahi izan duguna: Euskaldunak erdaldunengandik bereiztea.

Horretarako “jatorrak” ziruditen “markak” indartu ditugu puntuaketa aldetik, nahiz eta, azkenik, AUKERA ARBITRARIO bat izan. Baloraketa eta eritzi hauekin ados ez dagoenari, ez dio Testak mesede handirik egingo, eta hau ez da ahaztu behar.

AZPITESTAK

- **Lexikoa:** 30 hitz, Eskolaurreko programaketetatik ateratak. Pasaketa: Irudi bat erakutsiz, galdetu: “Zer da hau?”. Ondo esaten badu, puntu 1. Azpittest honek, bizpahiru zalantza planteiatzen ditu. Zenbait irudi ez dira oso argiak. Hala ere, mimikaz edo beste edozertaz baliatzen gara haurrak, zer erakutsi nahi diogun jakin dezan.

- **Ipuin errepikapena:** Lau marrazki duen ipuin bat kontatzen diogu haurrari. Gero, berak, berdin kontatu behar digu.

Ebaluaketa: Ekintzak, xehetasunak, deklinabidea, aditza, hitz ardatzak... Garrantzitsua da ipuina era atseginez eta ongi kontatzea, umearen aditasuna mantentzeko. Ez da ezer errepikatzen.

Puntuaketa: Puntuaziorik gorena, 86 da. Esaten ez duenagatik deskontatzen zazikio puntuak.

- **Galderak:** Aurreko ipuinarekin loturik doa. Irudiak, beti haurraren aurrean daude, oroimenaren garrantzia gutxitzeko. Gehienbat ulermena neurtu nahi dugu bost galdera hauen bitartez.

- **Ipuin asmatua:** Sei marrazkidun ipuin bat.

(*) EABHEM TESTAREN irudiak, Fernando Garcia-k egin ditu.

Irudi horietaz baliatuz, ipuin bat asmatzeko eskatzen diogu haurrari. Ebaluaketa: atal bakoitzak bere puntuak ditu. Hizkuntzak duen "berezitasunagatik", puntuazioak ez du praktikoki mugarik, hiztunak diotenaren arabera da.

INKESTAK ETA ALDAGAIAK

Euskalduntzean, jakina, badira eragiten duten hainbat faktore, prozesua bideratzen edo aldaerazten duten hainbat baldintza. Gurasoen Hizkuntza, Inguruarena, Irakaslea, Eskola, Maila sozioekonomikoa, Adimena... Horiei, ALDAGAIAK deitzen diegu, Soziolinguistikoa, sikolinguistikoak... eta abar.

Aldai guztiek ez dute pisu edo indar berbera, eta horixe da hain zuzen jakin nahi duguna. Zer da inportanteena euskalduntzeko orduan?

Zer aldatu behar dugu umeen euskalduntzea hobetzeko?

Galdera horiei erantzun nahian, gure ikerlanaren bidez testatuko genituen haurren ezaugarri sozio-sikolinguistikodak ezagutzea izan genuen xede.

Inkesta bat egin genuen eta, irakasleak arduradun izendatuz, aztertze-ko genituen haurren gurasoei bidali genien. Jasotako aldagaiak hauek dira:

1. Etxean erabiltzen den hizkuntza

Gure ustez, eta konplikazio gehiegitan ez jausteko, lau aukera ziren bidezkoak:

- a) Euskara hutsa
- b) Erdara hutsa
- d) Biak baina euskara gehiago
- e) Biak baina erdara gehiago

Aldez aurretik, oso inportantetzat jo genuen aldagai hau, eta hala gertatu zen, gero ikusiko dugun bezala.

2. Gurasoen jatorria

Edo non jaioak diren. Aldagai honek, etxeko hizkuntza du atzean, hein handi batetan eta analisisian ikusiko dugunez bezain gardena da.

Eman genizkien aukerak:

- a) Biak Euskal Herrikoak
- b) Biak kanpokoak
- d) Bat kanpokoak

3. Gurasoen ikasketa maila

Bazirudien honek eraiginik izan behar zuela haurren hizkuntza gaitasunean. Hala ere, gauza batetaz konturatu ginen: Euskaldunenak ez dira izaten "ilustratuenak" hain zuzen. Arrantzale, baserritar, langile ta abarrengan ematen bait da, maiz, euskalduntasunik handiena.

Jaso ditugun aukerak:

- a) Ikasketa Primarioak
- b) "Batxiller Elementala"
- d) "Batxiller Superiorra"
- e) Unibertsitate maila

Analisirako, guraso bien mailarik altuena hartu dugu familiaren ezaugarritzat.

4. Gurasoek euskara ikasten duten ala ez

Hainbatetan, entzun dugu, gurasoen euskalduntzeari ere ekin behar diogula, haurren prozesuari laguntzeko. Horrek zirikatatu gintuen eta aldagai honen garrantzia ikusi nahi izan dugu.

Hona jasotako aukerak:

- a) Euskara ikasten, Hastapenetan
- b) Euskara ikasten, Alfabetatzen
- d) Euskara ikasten, Goi mailan
- e) Ez du ikasten

Hemen, aita eta ama bereiztea, interesgarria litzatekeela susmatu genuen, ez bait dira umearekin denbora berdina egoten.

5. Inguruaren hizkuntza

Lehen aipatu bezala, gure lagina, Udalerrien Euskara-portzentaien arabera egituratuta dago eta beraz, jaso egiten dugu aldagai honen balioa. (Aurrerago eman dugu eskualdeen taula). Ikus 12. orrialdea.

6. Irakaslearen eritzia

Berau ere garrantzitsua zela pentsatu genuen.

Irakasleak, zer nolako kalifikazioa jartzen zion umeari, hizkuntz gaitasunari dagokionez; hauxe ikusi nahi genuen.

Alde batetik, era honetara, testaren "eritzia" eta irakaslearena konfrontatu genitzakeen, eta bestetik, haurren mailaketa bat daukagu, nahiz eta oso mugatua izan.

Mugatua diogunean, zera esan nahi dugu:

a) Andereño bakoitzak duen erreferentzia bakarra, nota bat ipintzeko, bere gela da, eta beste guztiez, ez daki ezer.

b) Andereñoaren eritzia, pertsonala eta subjektiboa da. Hor giza harremanak, afektibitatea eta abar sartzen dira eta.

Dena den, hona, jaso ditugun kalifikazioak:

1. Bikain
2. Oso ondo
3. Ondo
4. Nahiko
5. Nahiko ez
6. Gaizki

Analisian ikusiko dugun bezala, testaren iritzia eta andereñoarena, ez datoz bat kasu batzutan. Batez ere, xehetasun haundirik ez dagoelako. Baina "grosso modo" NAHIKOTik gorakoetan eta NAHIKOTik beherakoetan eritziak oso bateratuak daude. Testak, "erdikoak" gehiago diskriminatzen ditu, andereñoak denak poltsa batetan sartzeko joera bait dauka.

Guztiok dakigu, aipatutako aldagaiez aparte, beste batzu ere badirela, oso garrantzitsuak. Tamalez, ez daude lan honetan jasota. Horra hor **irakaslearen eragina**. Ezin uka aldagai hau inportanteenetako bat dala. Hizkuntza, Eskolan soilki "bizitzen" duten haurrentzat, irakaslea da gehienbatean. Atsegina den, ona, txarra, konpetentea... Baina aldagai hau operazionalizatzeak, arazo handiak dakartza eta guk ez dugu aintzakotzat hartu. Badakigu, hor atzean dagoela haurren puntuazioetan, baina "misterio" bat izaten jarraitzen du.

Irakaslearekin guztiz loturik, METODOLOGIA dugu beste aldagai bat eta berarekin batera, IKASTETXEA, GELETAKO HAUR KOPURUA, MAILA SOZIOEKONOMIKOA... eta abar. Beste batzu ere badira, seguru. Hor gelditzen dira estudio zehatzago baten zain.

MATERIALA

E.A.B.H.E.M. TESTA

APLIKATZEKO ARAUTEGIA

HELBURUA

Froga honen helburua, 5-6 urteko haurren euskara maila neurtzea da.

NORENTZAT

Printzipioz, 5 urteko haurrentzat edo Eskolaurrea bukatzen ari direnentzat.

ERRESPETATU BEHARREKO BALDINTZAK (Pasaketa orduan)

Arau batzu, kontutan hartzekoak:

1. Emandako erabiltze-arauak, hitzez hitz jarraitu behar dira.
2. Aztertzaileak, zentzun berean, ezin du, bere kabuz, gauza berririk asmatu.
3. Testa, leku eta giro lasai eta egoki batetan egin behar da.
4. Testaren materiala, ezin da beste inon erabili, zeharo ezezaguna izan behar bait da haurrentzat.
5. Ebaluaketa, lehenbaitlehen komeni da egitea. Horretarako eta pasatzeko ere, ezinbesteko entrenamendu batetaz jabetu behar gara.

ERABILTZE ARAUAK

0. Lehendabizi, **Harreman galderak** ditugu.

Galdera hauen helburua, harremanetan hastea da eta, aldi berean, beharrezkoa den "giroa" sortzea.

Azttertzaileak, beste galdera batzu ere erabili ditzake, haurrarekiko begikotasun bat lortzeko asmotan.

Oso interesgarria deritzogu, erantzunak idazteari, gero, datu bat izango da eta.

1. Lexiko froga

Erabilkera: Irudiak, zenbakion arauera ordenatzen dira.

1. BURUA 2. AHOA 3. BELARRIA 4. HANKA 5. EZPAINA 6. OKOTZA 7. IPURDIA POPA 8. ILEA	9. LIBURUA 10. MAHAIA 11. ERLOJUA, ORDULARIA 12. PLATERA 13. AULKIA, JEZARLEKUA 14. HORMA, PARETA 15. ATEA 16. ETXEA, BASERRIA	17. ITURRIA 18. BIDEA, KAMINDA 19. ZUHAITZA, ARBOLA 20. TXAKURRA 21. AUTOA, KOTXEA BEREBILA 22. LANTEGIA, FABRIKA 23. MENDIA	24. ERREKA, IBAIA 25. BEHIA 26. ZALDIA 27. SAGUA, ARRATOIA 28. TXIMINDA 29. HARTZA 30. HONDARTZA
---	---	---	--

Lexiko froga pasatzeko era

(Irudiak ordenatuta dauzkagu, eta haurrari erakutsiko dizkiogu)

a) Froga

Txartel bakoitza ere, dagokion numeroz markatuta dago.

Irudiak ordenaturik, banan banan ematen zaizkio haurrari, “**zer da hori?**” galdeginez.

Erantzun zuzenak, “X” batez markatzen dira ebaluaketa orrian “1”en zutabeetan.

Ez dakizkienak, marra batez edo hutsik uzten dira.

2. Ulermena-adierazpena

“PERU SAGUA”ren ipuia kontatu behar diogu haurrari.

Astiro, eta expresibitatez, ekintzei zentzuna ematen eta gertakizunak azpimarratzen.

Aldez aurretik, zera esaten zaio:

Begira, orain ipui polit bat kontatuko dizut, zuk entzun ondo eta gero berriz kontatuko didazu, berdin berdin.

Irudiak, bere aurrean jartzen ditugu eta kontatzerakoan, biñeta bakoitza erakusten diogu.

Ipuinaren textua, pasaketa orrian dago. Bere azpian, haurraren kontakizuna idazteko gune bat duzue, idatziz jaso nahi dutenentzat bederen.

Ebaluaketa

Aipatzen edo esaten ez duenagatik deskontatzen zaizkio puntuak (86tik).

Hitz primarioak

Peru, Sagu, Gazta, Katu, Adibidea: "sagu" esaten ez badu, "X" bat jartzen da kasila horretan eta... lerro azkenean beraz, 4 puntu kontatu.

Aipatzen ez duen hitz bakoitzagatik beraz, 4 puntu.

"SAGUA"ren ordeztan, ARRATOIA esango balu, bi (2) puntu kenduko genizkioke.

Aditzak

Ikusi, Irten, Egon, Eduki, Esnatu, Ihes egin, Zarata atera ez, Hartu... 4 puntu, aipatzen ez duen bakoitzagatik.

Berdin, "X" bat jartzen da dagokion koadroan, eta batuketa lerro azkenean. Aditza erabiltzen badu baina gaizki, puntu bi (bakoitzagatik) deskontatzen dira. Adibidez, "Egon du".

EKIBALENTZIAK: Irten = joan; esnatu = izartu, akordatu; Zarata atera ez = zarata egin barik; Hartu = kendu = harrapatu = agarra...

OHARRAK: Esnaturen ordeztan, BEGIA IREKI esaten badu, 2 puntu bakarrik deskontatzen zaizkio.

Ihes Egin-en ordeztan, KORRIKA EGIN; ARINEKETAN JOAN, ARRAPALADAN JOAN, e.a. esango balu, 2 puntu bakarrik deskontatzen dizkiogu.

Xehetasunak

Aipatzen ez duen xehetasun bakoitzagatik, 2 puntu deskontatzen zaizkio. "X" batez marka eta azkenean batu. Guztira, hauexek dira: Txikia, bizkorra, aurrean, etxetik, gozoa, lo, jatera, isilik, esku artean, beldurrez, beltza, ondoan.

EKIBALENTEAK: Bizkorra = azkarra; Eskuardean = eskuetan, eskuagaz; Beldurrez = bildurragaz, beldurrarekin...

Deklinabidea

Bost kasu daude (NON, NONDIK, NORA, NORK, ZEREZ). Erabiltzen ez duen kasu bakoitzagatik, puntu 2, kentzen zaizkio.

Erabili egiten du, baina gaizki: puntu bat (1) kentzen zaio bakoitzagatik.

Ezezko esaldia

Baten bat ezango ez balu, 4 puntu kentzen zaizkio.

Erabili egiten du, baina gaizki, 2 puntu kentzen zaizkio.

Lerro bakoitzaren totalak batuko ditugu eta zenbaki hori, 86ri kendu. Gelditzen dena, hori da PUNTUAZIO ZUZENA (P.Z.).

3. Galderak

Haurrak ipuina kontatu duenean, galdera hauek egiten zaizkio, beti irudiak aurrean dituelarik.

1. Zer da Peru? Nolakoa?
2. Zer ikusi du? Nolakoa?
3. Gazta ondoan nor dago? Nolakoa?
4. Zer egiten du saguak? Eta zer gehiago?
5. Gazta jatera doanean, zer gertatzen da? Eta zer gehiago?

“Nolakoa?” bigarren galdera hori, bakarrik egiten diogu, lehenengo galderaren zatia erantzun sinpleenez erantzuten duenean.

Batzutan, galdera bati erantzuterakoan, beste batzuri ere erantzuten die. Hau ez da kontutan hartzen eta jarraitu egiten da galdera guztiekin.

Ebaluatzeko era

Guztira, 30 puntu atera daitezke.

- | | |
|--|---------|
| 1. – Sagu bat, Arratoi bat | 3 puntu |
| – Txikia, bizkorra | 3 puntu |
| – Era ezegokiz, baina ulertuz | 1 |
| 2. – Gazta bat | 3 puntu |
| – Gozoa | 3 puntu |
| – Era ezegokiz baina ulertuz | 1 |
| 3. – Katua | 3 puntu |
| – Beltza | 3 puntu |
| – Era ezegokiz baina ulertuz | 1 |
| 4. – Etxetik irten (joan) | 3 puntu |
| – Gazta jatera (hartzera) | 3 puntu |
| – Era ezegokiz baina ulertuz | 1 |
| 5. – Katua esnatu (konturatu, begia ireki) | 3 puntu |
| – Saguak ihes egin (korrika egin) | 3 puntu |
| – Era ezegokiz baina ulertuz | 1 |

Azkenez, puntuaketa P.Z.n jarri.

OHARRA: Laugarren eta bostgarren galderetan, bi ekintza ezberdinak eta egokiak adierazi behar dira 6 puntu lortzeko.

Ipuin asmatua

Sei irudiak, ordenaturik aurkezten zaizkio eta marrazkien ordena nondik nora doan erakusten zaio. Ondoren, berak asma dezala ipuin bat han agertzen diren irudiekin.

Hitez hitz jasotzen da haurrak esaten duena (Hobe grabatzea).

Pasaketa orrian, hutsune bat dago horretarako.

Ebaluaketa

PERPAUSAK	Simplea suj.+ad.	3 Elementu suj.+ad.+konp.	Konposatua	Ezekoa	Guztira
Ongi.....	3	4	3	6	
Gaizki.....	1	2	1	4	

Perpausak

Adibide batzuren bitartez azalduko dugu.

– **Perpaus simplea:** Sujettoa gehi aditza. Ad.: Ama etorri da. (Ez da beharrezko, sujettoa explizitoki agertzea).

– **Hiru elementuko perpausa:** Sujettoa gehi aditza gehi konplementoak (bat edo gehiago). Ad.: Umeak, ohe gainean, salto batzu egin ditu.

– **Perpaus konposatua:** Kasu hau nahiko berezia da. Konposatutzat, subordinatuak bakarrik hartu ditugu. Ad.: Ama datorrenean, umeari bazkaria emango dio.

Lehen esaldiari esaldi simple bezala kontsideraturik, 3 puntu dagozkio. Bigarren esaldia hiru elementukoa da beraz, 4 puntu. Eta **BESTE 3 PUNTU** emango dizkiogu **KONPOSATUA ONDO EGINA** izateagatik. **GUZTIRA:** 3 + 4 + 3 = 10 puntu.

– **Gaizki dagoenean:** Puntu bat (1) ematen diogu, konposatua izateagatik. Ad.: “Ama etorri dan (denean), umeari bazkaria eman dio”.

OHARRAK:

(1) Perpausetan esaldi bat, aurrekoaren konplementoa izan daiteke.

Ad.: “Amak esaten du: Umea, zatoz bazkaltzera!” Kasu honetan, “Umea, zatoz bazkaltzera” “Amak esaten du”-ren konplementoa da. Beraz, 4 puntu ematen zaizkio “Amak esaten du” perpausari, hiru elementukoa delako. Bigarren zatia “Umea zatoz bazkaltzera” normal puntuatzen da.

(2) Forma konjugatugabeak: (-tzera, -tzeko, -tzen... etab) ez ditugu subordinatu bezala puntuatu.

LEHEN esaldiak aditza ondo jokatur dauka. Beraz, 3 puntu dagozkie. BIGARREN esaldia hiru elementukoa da beraz, 4 puntu dagozkie.

Baina atzizkia gaizki dagoenez, puntu bat ematen zaio KONPOSATU IZATEARI. GUZTIRA: 3 + 4 + 1 = 8 puntu.

– Ezezko perpausa: Ad.: “Haurrari, ez zaio bazkaria gustatzen”.

Aditza

ADITZA	nor	nor nork	nor nori nork	nor nori	tzeko	inpe.	guztira
lehen a	4	5	6	5	2	3	
orain a	2	3	4	3	2	3	
gaizki j	1	1	3	1		1	

* OHARRA: ADITZ SINTETIKOA erabiltzeagatik, puntu bat (1), gehiago, bakoitzagatik (dut, naiz, daukat ezik).

Potentziala

	nor	nor nork	nor nori nork	nor nori
Ondo	6	7	8	7
Gaizki	3	3	6	3

Nor: “Ume bat da”. Puntuaketak, taulan ikus ditzakezu.

Nor-nork: “...ekarri du. ekarri nau...”.

Nor-nori-nork: “...esan dio...”.

Nor-nori: “...ez zaio gustatzen...”.

– **Tzeko-teko:** “...amak esantzo etortzeko... eta jateko”. Sarri, subjuntibo baten ordean ipintzen da baina oso arrunt-tzeko erabiltzen da.

– **Inperatiboa:** “Etor zaituz!”. **Kontuz!:** ADITZ LAGUNTZAILEA AGERTU BEHAR DA INPERATIBOZ. Ez da nahiko, partizipioa. Ad.: “etorri hona!”.

OHARRAK:

Aditz berberak BEHIN bakarrik kontatzen dira. ERREPIKAPENEK, EZ DUTE BALIO. Ad.: “Umeak jertsei bat **dauka**”. Amak eskuetan bazkaria **dauka**”. DAUKA, behin kontatuko da.

Desberdinak: “Umeak etxean **bazkaldu du**”. “Umeak ohean **jolastu du**”.

Deklinabidea

DEKLINABIDEA	NORK	Besteak	
Ondo PUNTUAK	4	2	

Aditzetan bezala, kasu berberak, BEHIN bakarrik kontatzen dira. Ad.: Etxean... Ikastolan... puntu bakar bat.

Izenak

Propioak eta arruntak kontatzen dira. Errepikapenak ez dira kontuan hartzen. Ad.: Kepa, ama...

Izenak

Puntu 1 bakoitzagatik.

Adjetiboak eta Adberbioak

Lehen bezala, behin hartzen dira kontutan.

Ad.: Hemen, gero, polita, urdina...

"Haserretuta, lokartuta, nekatuta... e.a." adberbiotzat hartu ditugu. Beraz, "nekatuta dago", kasuan, DAGO, aditza da, ez besterik.

Adj eta Adberb.

Puntu 1 bakoitzagatik.

Zuzenketa egin ondoren

Jar itzazu azpitest bakoitzaren Puntuazio Zuzena, Pasaketa-koadernoaren azken orrialdeko, koadroetan. Bila itzazu tauletan dagozkien Puntuazio Tipifikatuak eta batuketa egin. Azkenik "MAILA" bat egokituko zaio puntuazio horri.

DATU ESTATISTIKOAK

AZPITESTEN DESKRIBAPENA

Gure lau azpittesten batezbestekoak, desbiderapenak, eta histogramez zenbait hitz.

LEXIKOA

Froga honen distribuzioa, (ikus 1. irudia) azaltzeko, hona gauzarik aipagarrienak:

– Frogaren rangoa edo atera daitekeen puntuaketa, zerotik, hogeita-marrera doa (0-30).

Ikusten denez, batezbestekoa (\bar{X}), 24,4, oso altua da.

Kurba ere desorekatua dago. Haur gehienak, puntuazio altuen zonan daude. Desbiderapen Estandarrari begiratu, (σ) oso txikia dela ikus dezakegu, heterogeneotasunik ez dago beraz, "mundu guztiak" oso nota altuak ateratzen bait ditu Lexikoan.

Hau, gure helburua lortzeko, kaltegarria da. Suposatzen du froga erraza dela eta beraz, ez digu adierazten nork dakien benetan euskara eta nork ez.

Alde batetik, pentsatzekoa da Lexikoak berak hizkuntzaren barruan duen garrantzia. Gure ustez ez da gehiegizkoa (*).

Hala ere, gakoa, hemen egon daiteke:

Guk aukeratu ditugun hitzak, eskola mundukoak izan dira, nahiz eta bizitza errealean agertu, eskolan ematen diren programazioetatik hartuak dira. Normala denez, haur guztiei, erdaldunak zein euskaldunak izan, agertu zaizkie hitz horiek Eskolaurrean zehar.

Kaleko hitz "jatorrak" ipini izan bagenitu, adibidez, euskaldunek besteak baino gehiago ezagutuko lituzkete, agian.

Dena den, hor dago distribuzio hori. Gehienez, muturretako kasuak bereizteko balio lezake, baina ez "erdikoak".

IPUIN ERREPIKAPENA (ikus 2. irudia)

Oso bestelakoa da Ipuin Errepikapenaren kasua. Rangoa zerotik, larogeitaseira bitartekoa da eta kurba zeharo "normal" itxurakoa da.

Batezbestekoa, (\bar{X}) 34,3koa da eta desbiderapena haundiegia ez bada ere, ea Xaren 1/3ra hurbiltzen da, 11,12, eta horrek, heterogeneotasun

(*) Bestalde. Lexikoa oso zabala da eta gure "lexiko muestra" oso txikia.

bat adierazten du. Hemen ez du "mundu guztiak" puntuazio beretsua ateratzen. Gora behera haundiak gerta daitezke.

Proba hau, izatekotan, zail samarra da eta inolaz ere ez erraza.

Gure helburua ondo betetzen du. Diskriminagarria dela esan dezakegu.

GALDERAK (ikus 3. irudia)

Froga honetan atera daitekeen puntuaketa, zerotik hogeitamarrera bitartekoa da.

Batezbestekoa, 19,6 delarik, nahiko altua beraz, distribuzioak, desoreka bat adierazten du. Gehienak. puntuazio altuetan kokatzen dira.

Hala ere, desbiderapen estandarra (σ) haundi samarra da, ia batezbestekoaren 1/3koa, 6,10 hain zuzen.

Beraz, Lexikoa baino heterogeneoagoa da, puntuazioen arteko ezberdintasun haundiagoa gertatzen da.

Froga hau ere erraztat jo genezake.

Agian, puntuatzeko era aldatuz, froga honek beste perfil ezberdin bat emango luke.

IPUIN ASMATUA (ikus 4. irudia)

Ipuin Asmatuan atera daitekeen puntuaketa, mugagabea da. Teorian, ia infinitoa, puntuaketa hiztunaren produkzioaren araberakoa bait da.

Batezbestekoa, 57,62 izanik, Desbiderapen Estandarra, oso oso haundia da. Honek esan nahi du, frogaren aurrean, haurrak oso era ezberdinetan portatzen direla.

Atera diren puntuazioak oso heterogeneoak dira.


Kurba normal itxurakoa da.

Froga honek, gure helburua ongi betetzen du eta diskriminagarria dela esan genezake.

Deskribapen honetan esan bezala, zenbait frogak, aldaketa edo zuzenketa bat eskatzen du. Hori idealena litzateke, era "komertzialago" batetan ateratzeko batik bat.

LEXIKOA (1. IRUDIA)


$N = 252$
 $\bar{X} = 24,44$
 $\sigma = 3,69$



IPUIN ERREPIKAPENA

(2. IRUDIA)

$N = 252$
$\bar{X} = 34,34$
$\sigma = 11,12$


INTERBALOAK

1	(5-10)
2	(11-15)
3	(16-20)
4	(21-25)

·
·
·

GALDERAK (3. IRUDIA)

$N = 252$
 $\bar{X} = 19,65$
 $\sigma = 6,10$




IPIIN ASMATUA (4. IRUDIA)

$N = 252$
 $\bar{X} = 57,62$
 $\sigma = 24,44$

INTERBALOAK

- 0 (0-5)
- 1 (6-10)
- 2 (11-15)
- 3 (16-20)
- ⋮
- ⋮



AZPITESTEN ARTEKO KORRELAZIOA

Pearson-en korrelazio koefizienteaz baliatuz, azpittesten arteko "erlazioa" ikus genezake.

Ondoko korrelazio matrizean agertzen denez (5. irudia), azpittesten arteko "r"ak ez dira haundiak. Haundiena, Galderak eta Lexikoaren artekoa izanik (0,61).

Nola interpretatu hau?

Kasu honetarako, eta lagin edo muestra bat dela kontutan harturik, % 95eko konfidantza marjinaz, zera esan genezakeen:

- Laginean $r \geq 0,77$ Populazioan, $r \geq 0,7$
- Laginean $r \geq 0,84$ Populazioan, $r \geq 0,8$
- Laginean $r \geq 0,92$ Populazioan, $r \geq 0,9$

Baina, dugun korrelaziorik altuena, 0,61 da.

Determinaziozko Koefizientea eginez, hau da, r^2 , hauxe esan daiteke:

Azpittestak, X eta Y deitzen baditugu, eta r^2 da Xek azaltzen edo explikatzen duen Y ren bariabilitatearen "zatia", gehienez, Xek, Yren % 38 a azaltzen duela, LEXIKO-GALDEREN kasuan hain zuzen.

Gure estudioan beraz, azpittest guztiek badute zerbait elkarrekin, baina ez dira gauza berbera. Bakoitzak bere "nortasuna" du, bere arloa neurtzen du.

Eta hori "ona" da. Kezkagarria litzateke azpittesten arteko korrelazioa haundiegia balitz. Era horretara, bat izan ezik, beste guztiak sobran bait leudeke. Hau da, batekin aski genukeen neurtu nahi duguna neurtzeko.

Datu osagarri bezala, SPEARMANen korrelazio koefizientea ere ematen dizuegu (). Honen zentzuna:

Testek, nola "ordenatzen" dituzten haurrak, zentzu berdinean ala alderantziz. (*) Test baten ordenatzeak ez du bestearena determinatzen zentzu berekoak badira ere.

(*) IKUS:

- J. Seoane. "Psicología Matemática I". UNED. 523.orr. eta hurrengoak.
- Downie-Heath. "Métodos estadísticos aplicados". Ed. Del Castillo. Madrid 1983. 100.orr. eta hurrengoak.
- F. Calvo. "Apuntes de estadística aplicada a la sociología". Universidad de Deusto. 101.orr.

(5. IRUDIA)

PEARSON-EN KORRELAZIO KOEFIZIENTEA

	LEXIKO	IPUIN ERREPIKAPENA	GALDERAK	IPUIN ASMATUA
LEXIKO	1.000	0.5570	0.6165	0.3694
IPUIN ERREPIKAPENA	0.5570	1.000	0.5751	0.4846
GALDERAK	0.6165	0.5751	1.000	0.4424
IPUIN ASMATUA	0.3694	0.4846	0.4424	1.000

SPERMAN-EN KORRELAZIO KOEFIZIENTEA

LEX. — I. ERREP.	0,5189 N = 252 SIG. .001	I. ERREP. — GALDE	0,5343 N = 252 SIG. .001
LEX. — GALDE.	0,5529 N = 252 SIG. .001	I. ERREP. — I. ASMAT.	0,4444 N = 252 SIG. .001
LEX. — I. ASMAT.	0,2811 N = 252 SIG. 001	GALDE. — I. ASMAT.	0,3504 N = 252 SIG. 001

ANALISI FAKTORIALA

Gure estudio honetan, haurrak SAILKATZEA zen helburu inportanteenetako bat. Sailkapen hori egiteko, Analisi Faktorialaz baliatu gara.

Azpitest bakoitzat duen pisuaren arabera, SAILKAPEN-FORMULA bat atera da.

Bestalde, aldagai ezberdinen kokapena adierazten duten MAPAK ere erabiliko ditugu.

Mapan agertzen diren puntuek, batezbesteko bat adierazten dute, aldagai horren puntu guztien kokapenaren arabera eta beste aldagaien puntuen kokapena kontutan harturik. (Azpitesten mapa izan ezik).

Lehendabiziko bi faktoreek, informazioaren % 80 jasotzen dute.

Nagusiki, faktore bi ikusiko ditugu:

1. Lehen Faktoreari, (F_1) EUSKARAREN FAKTORE OROKORRA deituko diogu. Garrantzitsuena da. Faktore honek, Euskara Mailaren arabera sailkatzen ditu haurrak.

2. Bigarren faktoreari, ASMATZEKO GAITASUNA deituko diogu. Asmatzeko gaitasunak menperatzen du eta haurren ezaugarri pertsonalekin oso loturik dago seguru asko.

Alde batera –goian– trebetasun Lexikala dutenak kokatzen ditu eta bestera, behe partean, Asmatzeko gaitasuna dutenak agertzen ditu batez ere.

Baina, sar ditzagun aldagai ezberdinak analisi honetan.

Bergogoratuko dugu:

Lehenik, F_1 ek, ezkerretik eskubira, euskararen gaitasun orokorra adierazten du.

Bigarren, F_2 ak, goitik Trebetasun lexikala, behetik, Asmatzeko Trebetasuna.

1. Lehendabiziko irudian, **lau proben kokaketa dugu** (1. irudia)

Lehen Faktorearekin, korrelazio positiboa dute lau azpitestek.

Bigarren Faktorean ordea, Lexiko eta Ipuin Asmatuaren arteko oposaketa dago.

2. Ondoren, ZONA LINGUISTIKOA (2. irudia)

Zona Euskaldunak, eskubian daude, orokorki. Oso nabaria da zona Erdaldunaren ezkereratzea, oso ezkerrean.

Honen interpretazioa, Bariantzaren Analisisian egina dago. Hemen, nolabait konfirmatzen da, zona euskaldunekoa-erdaldunekoa izateak duen eragina.

3. ETXEKO HIZKUNTZA (3. irudia)

Agirian dago, Etxeko Hizkuntzaren eragin garrantzitsua. Erdara hutsez egiteak, oso ezkerrean kokatzea suposatzen du, alde "negatiboan".

Bestalde, "zenbat eta euskara gehiago etxean", eskubirago lekutzen da.

4. GURASOEN IKASKETA MAILA (4. irudia)

Nahiz eta danak oso hurbilean egon, ez dago diferentzia nabarmenik.

Hala ere, lojikotasuna du mapak.

Ikasketa Primarioenak, ezkerreko muturra egiten dute eta, Batxiller Superior eta Unibertsitatea, parekaturik, eskubiko beste muturra.

Baina Bariantzaren analisisian frogatzen denez, gure kasuan, aldagai honen eragina ez da hain handia.

5. GURASOEN JATORRIA (5. marrazkia)

Oso argi dago, Euskal Herriko gurasoen posizioa azkoz faboragarriagoa dela eskubian.

Ondoren, "bat kanpokoaren" posizioa eta oso urruti, ezker ezkerrean, "biak kanpokoak".

Esaten genuen lehen ere, berez, toki batetan edo bestetan jaiotzeak ez duela hizkuntza arloan eraginik, pertsona horiek egiten duten hizkuntzazatik ez bada.

Normala denez, kanpoan jaiotako ia guztiek erdara hutsez egingo dute.

Beraz, aldagai honen atzenik, nagusiki, beste bat somatzen da: Etxeko hizkuntza hain zuzen.

6. AMAK EUSKARA IKASTEAREN (6. marrazkia)

Aldagai hau oso nahasia agertzen zaigu eta batzutan ez du lojikotasun handirik.

Dударик gabe, goi mailan ikasten dutenek, kokapen pribilejiatu bat dute eskubiko muturrean. Alfabetatzekoek ere kokapen ona dute.

Baina Ikasten ez dutenak eta Hastapenetan daudenak, inguruan dabilta, diferentzia haundirik gabe, baina ezkerrean.

Bariantzaren analisisian ikusten denez, Hastapenekoek eta Ikasten ez dutenek, ez dute haien arteko diferentziarik.

Lehen Faktoreak ere, bi talde egin ditu, batzu ezkerreko muturrean (MA2, MA3) eta beste biak eskubian.

7. AITAK EUSKARA IKASTEIA (7. marrazkia)

Hemen, amen kasuan ikusitakoak, berdin balio du. PA2 eta PA3, eskubian dira eta PA1 eta PA4 ezkerrean.

Hala ere, Bariantzaren analisisian esandakoa: Aldagai honen eragina ez da garrantzitsua gertatu.

8. ANDEREÑOEN KALIFIKAZIOA (8. marrazkia)

Andereñoen kalifikazioa ez da gauza guztiz objetiboa. Alde batetik, bakoitzak bere gelaren erreferentzia izan du nota jartzerakoan eta horretarako izan dituen erizpideak ez daude hain argi.

Baina guri, "grosso modo", asko interesatzen zaigu andereñoaren eritzia.

Andereñoak ongi daki GOIKOAK eta BEHEKOAK bereizten.

Eta testarekin konparatuz, eritziak bat datoz.

Euskararen Faktore Orokorak, honela banatzen ditu:

Goi mailako haurrak (Bikain, oso ondo, ondo) eskubiko muturrean kokatzen dira.

"Nahiko" dunak ezkerrean, eta "SUSPENDITUAK" nolabait esateko, ezkerreko puntan daude. Beraz, banaketa oso "politikoa" da. Gero mapa orokorki komentatzerakoan, berriro aurkituko ditugu notak.

OROKORRI

Ikus dezagun mapa osoa eta aldagai guztiak.

Eskubiko erdia begiratuz gero, hortxe ditugu puntuazio onak, 4 azpitesetan, hortxe ere "Bikainak" eta "Oso ondo"koak, Aita eta Ama euskara goi mailan ikasten, Etxean euskaraz egitea, Zona euskaldunetako izatea, Gurasoen Ikasketa maila altua, Euskal herrian jaioak... eta abar.

Hor daude denak, inguruan, "senideak" direla adieraziz, elkarrekin datozela esanez. **Ezaugarri horiek, euskararen alde jotzen dute.**

Goazen orain beste puntara, euskararekin gaizki konpontzen diren ezaugarriak ikustera.

Alde negatibo honetan, "Gaizki" eta "Nahiko ez"koak aurkitzen ditugu, Etxean erdaraz hitzegitea, zona erdaldunekoa izatea eta gurasoak kanpoan jaiotakoak.

Guzti honek, euskararen kontra egiten du eta denak inguruan daude, bata bestearen ondoan.

Badira "erdi honetan" beste ezaugarri batzu ere baina horiek nahiko zentratuak daude: horra hor "Nahiko" kalifikaziodunak, Gurasoak euskara ikasten hasiak, Gurasoren bat kanpokoa izatea, Etxean Erdara gehiago egitea... eta abar.

Gure ustez, analisi honen emaitza oso argigarria da eta konklusio batzu ere atera daitezke.

Kontutan hartuz D ereduko haurrak direla denak, badira euskalduntzeko orduan aintzakotzat hartu behar ditugun baldintzak.

Haur guztien erritmoa eta lorpena ezin daitezke berdinak izan.

Hor ditugu kontutan hartzeko aldagai batzu (ez denak).

Baldintza eskasenetan daudenek behar dute hain zuzen laguntzarik handiena.

Analisiak adierazten duenez, Inguru erdalduna, etxe erdalduna, guraso inmigratuak eta abarrek, aparteko mundu bat osatzen dute. Haur horiek euskaldundu behar baditugu, alde askotatik ekin beharko:

1. Baldintzak aldatzeak, euskara kalean eta etxean sartzea suposatzen du.

2. Haurrak euskara ikasteko laguntza beharko du. Izugarritzko laguntza, bizi ez duen hizkuntza bat erabiltzeko. Hor irakasle eta metodologiek dute hitza. Izan ere, aldagai pedagogikoen eragina izugarria da seguru asko, baina guk ez ditugu jaso.

PONDERAZIOA

Aipatutako Sailkapen formula, lehen Faktorearen araberakoa da eta beraz, hasteko, bigarrenaren "ikutu" txikia galdu egiten da.

Hori kontutan harturik, beste ponderazio eta Sailkapen formula batez eraiki dugu gure "behin betiko" BAREMOA.

Testa, Bariazio Koefizientea eta eskalaren faktore zuzentzaile batez ponderatu da.

$$F = \frac{\sigma_1}{X_1} \cdot X_1 \cdot \frac{100}{R_1} + \frac{\sigma_2}{X_2} \cdot X_2 \cdot \frac{100}{R_2} + \frac{\sigma_3}{X_3} \cdot X_3 \cdot \frac{100}{R_3} + \frac{\sigma_4}{X_4} \cdot X_4 \cdot \frac{100}{R_4}$$

X_1 = LEXIKOA

X_2 = I. ERREPIKAPENA

X_3 = GALDERAK

X_4 = I. ASMATUA

R = rangoa

X = Batezbestekoa

σ = Desbiderapen estandarra

Sailkapen honek, bestearekiko koherentzia handia gordetzen du eta beraz testaren baliogarritasunaren ezaugarri ere bihurtzen zaigu.

Spearman-en σ bi sailkapenen artean: 0,97.

FIDAGARRITASUNA


Testaren fidagarritasuna jakin nahian, TEST RETEST metodoaz baliatu gara. Bi ikastolatako 27 haurri pasa zaie EABHEM testa. Hamabost egun pasa ondoren, berriz ere, haur berberei aplikatu eta bi emaitzen arteko PEARSON-EN KORRELAZIO KOEFIZIENTEA kalkulatu da:

$$r = 0,94$$

Beraz, ontzat eman dezakegu lortutako fidagarritasun maila.

ANALISI FAKTORIALA

1. IRUDIA




KODIGOA

LEX1 LEXIKO FROGA
 REPE IPUIN ERREPIKAPENA FROGA
 PREG GALDERAK FROGA
 INVE IPUIN ASMATUA FROGA

ANALISI FAKTORIALA

2. IRUDIA




KODIGOA

- ZO 1 Zona Linguistikoa 1 (%80-100)
- ZO 2 Zona Linguistikoa 2 (%60-80)
- ZO 3 Zona Linguistikoa 3 (%40-60)
- ZO 4 Zona Linguistikoa 4 (%20-40)
- ZO 5 Zona Linguistikoa 5 (%0-20)
- ZO 6 Zona Linguistikoa 6 (%0)

ANALISI FAKTORIALA

3. IRUDIA




KODIGOA

- CS 1 ETXEKO HIZKUNTZA EUSKARA
- CS 2 ETXEKO HIZKUNTZA ERDARA
- CS 3 ETXEKO HIZKUNTZA, BIAK BAINA EUSKARA GEHIAGO
- CS 4 ETXEKO HIZKUNTZA, BIAK BAINA ERDARA GEHIAGO

ANALISI FAKTORIALA

4. IRUDIA




KODIGOA

- ES 1 GURASOEN IKASKETA MAILA; PRIMARIOA
- ES 2 GURASOEN IKASKETA MAILA; "BATXILLER ELEMENTALA"
- ES 3 GURASOEN IKASKETA MAILA; "BATXILLER SUPERIOR"
- ES 4 GURASOEN IKASKETA MAILA; "UNIBERTSITATE MAILA"

ANALISI FAKTORIALA


5. IRUDIA

KODIGOA

- LU 1 GURASOEN JATORRIA; BIAK EUSKAL HERRIKOAK
- LU 2 GURASOEN JATORRIA; BIAK KANPOKOAK
- LU 3 GURASOEN JATORRIA; BAT KANPOKOA

ANALISI FAKTORIALA

6. IRUDIA




KODIGOA

- MA 1..... AMAK EUSKARA IKASTEN DU; HASTEN
- MA 2..... AMAK EUSKARA IKASTEN DU; ALFABETATZEN
- MA 3..... AMAK EUSKARA IKASTEN DU; GOI MAILAN
- MA 4..... EZ DU IKASTEN

ANALISI FAKTORIALA

7. IRUDIA




KODIGOA

- PA 1 AITAK EUSKARA IKASTEN DU; HASTEN
 PA 2 AITAK EUSKARA IKASTEN DU; ALFABETATZEN
 PA 3 AITAK EUSKARA IKASTEN DU; GOI MAILAN
 PA 4 EZ DU IKASTEN

ANALISI FAKTORIALA

8. IRUDIA



KODIGOA

- CL 1 ANDEREÑOAREN KALIFIKAZIOA (BIKAIN)
- CL 2 ANDEREÑOAREN KALIFIKAZIOA (OSO ONDO)
- CL 3 ANDEREÑOAREN KALIFIKAZIOA (ONDO)
- CL 4 ANDEREÑOAREN KALIFIKAZIOA (NAHIKO)
- CL 5 ANDEREÑOAREN KALIFIKAZIOA (NAHIKO EZ)
- CL 6 ANDEREÑOAREN KALIFIKAZIOA (GAIZKI)

BARIANTZAREN ANALISIA

Aldagaien eragina

Bariantzaren analisisiaz, aldagai ezberdinek duten eragina antzematen saiatuko gara.

Era honetara:

Zona linguistikoa eta lexikoa

Dakizuenez, 6 zona ditugu, udalerrian euskara dakitenen arabera:

1. % 80tik ——— % 100rako
2. % 60tik ——— % 80rako
3. % 40tik ——— % 60rako
4. % 20tik ——— % 40rako
5. % 0tik ——— % 20rako
6. % 0

Lexiko frogan, \bar{x} -rik altuenak, 20-40 eta 0-20 zonei dagozkie, eta bistanenez ez dira euskaldunenak hain zuzen. (1.lrudia).

Orain pareak egingo ditugu, eta SCHEFFE metodoz, 0'05 mailan, signifikatiboki ezberdinak diren pareak ikusiko:

“%0” zonaren \bar{x} -ak beste guztiekiko ezberdintasun signifikatiboa du.

$\bar{x} = 20'64$ eta zalantzarik gabe bajaena da.


Beste era batera esanda: zona linguistikoak eragin handia du lexikoan batez ere zeharo erdalduna den kasuan.

Zona linguistikoa eta ipuin errepikapena

Batezbestekorik altuenak ere, %20-40 eta %0-20 zonei dagozkie baita ere.

Oso nabaria da “%0” zonaren “beherakada”. Signifikatiboki ezberdina da “%0” zonaren \bar{x} , “%0-20” eta “%20-40”rekiko.

INGURUAREN HIZKUNTZA



ZONA LINGUISTIKOA – LEXIKOA

ZONA	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)	
80-100 %	24,634	2,763	
60-80 %	24,214	4,099	
40-60 %	25,325	2,387	
20-40 %	26,285	2,233	
0-20 %	25,523	3,140	
0 %	20,642	4,293	

ZONA LINGUISTIKOA – I. ERREPIKAPENA

ZONA	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)	
80-100 %	35,073	10,955	
60-80 %	34,119	10,326	
40-60 %	33,465	10,034	
20-40 %	38,666	10,859	
0-20 %	37,142	10,657	
0 %	27,666	11,287	

ZONA LINGUISTIKOA – GALDERAK

ZONA	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)	
80-100 %	20,829	5,558	
60-80 %	20,476	6,017	
40-60 %	19,790	5,730	
20-40 %	20,547	4,660	
0-20 %	21,047	5,155	
0 %	15,285	7,422	

ZONA LINGUISTIKOA – I. ASMATUA

ZONA	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)	
80-100 %	66,170	21,230	
60-80 %	69,976	25,747	
40-60 %	58,511	18,108	
20-40 %	58,619	21,239	
0-20 %	51,761	23,255	
0 %	41,833	26,102	

Zona linguistikoa eta galderak

\bar{x} -rik altuena, %0-20 zonari dagokio. “%0” zonarekiko, beste guztiek dituzte betezbestekoak signifikatiboki ezberdinak.

Zona linguistikoa eta ipuin asmatua

Batezbestekorik altuena, 60-80 zonari dagokio. “%0” zona oso behean dago.

“%60-80” zonarekiko, %0 eta %0-20ren \bar{x} -ak signifikatiboki ezberdinak dira.

“%0”ren \bar{x} , %0-20rekin ez ezik, beste guztiekiko signifikatiboki ezberdina da.

Konklusio gisa, zera ikus dezakegu: zona zeharo erdaldunekoa izateak, gehienetan EABHEM Testaren azpittestetan puntuazio bajuagoa ateratzea dakar berarekin. Eta puntuazio baju horren arrazoia, ziur asko, zonaren erdalduntasuna da.

Sar gaitezen orain, ETXEKO HIZKUNTZAREKIN.

Gure ustez, “a priori”, aldagairik inportanteenetako bat izan daiteke.

Hona bereiztu dugun tipologia:


1. Euskara hutsa
2. Erdara hutsa
3. Biak, baina euskara gehiago
4. Biak, baina erdara gehiago

Etxeko hizkuntza eta lexikoa

Erdara hutsaren \bar{x} -a besteak baino askoz bajuagoa da.

Erdara hutsak besteekiko duen desberdintasuna signifikatiboki ezberdina da. 0’05 mailan.

ETXEKO HIZKUNTZA



ETXEKO HIZKUNTZA – LEXIKO

ETXEKO HIZKUNTZA	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)
EUSKARAZ	25,758	2,306
GAZTELANIAZ	20,816	4,419
BIAK, EUSKARA GEHIAGO	25,730	2,737
BIAK, GAZTELANIA GEHIAGO	24,333	3,414

ETXEKO HIZKUNTZA – I. ERREPIKAPENA

ETXEKO HIZKUNTZA	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)
EUSKARAZ	38,230	9,051
GAZTELANIAZ	26,979	11,366
BIAK, EUSKARA GEHIAGO	36,173	10,062
BIAK, GAZTELANIA GEHIAGO	33,185	11,895

ETXEKO HIZKUNTZA – GALDERAK

ETXEKO HIZKUNTZA	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)
EUSKARAZ	21,186	5,351
GAZTELANIAZ	15,102	6,715
BIAK, EUSKARA GEHIAGO	21,403	5,640
BIAK, GAZTELANIA GEHIAGO	19,500	4,713

ETXEKO HIZKUNTZA – I. ASMATUA

ETXEKO HIZKUNTZA	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)
EUSKARAZ	69,373	22,846
GAZTELANIAZ	43,346	24,971
BIAK, EUSKARA GEHIAGO	57,788	18,280
BIAK, GAZTELANIA GEHIAGO	50,314	17,772

Etxeko hizkuntza eta ipuin errepikapena

Mailaketa, guztiz logikoa agertzen zaigu. Euskara hutsak du \bar{x} -rik altuena.

Erdara hutsaren \bar{x} -aren diferentzia beste guztiekiko signifikatiboki ezberdina da. Bestalde, "Euskara" eta "Biak baina erdara gehiago"ren arteko ezberdintasuna ere signifikatiboa da.

Etxeko hizkuntza eta galderak

Batezbestekorik altuenak, "Euskara" eta "Biak, Euskara gehiagori" dagozkie, "Erdara" hutsa oso behean gelditzen delarik.

Erdararen \bar{x} ak, beste guztiekiko duen diferentzia signifikatiboa da.

Etxeko hizkuntza eta ipuin asmatua

"Euskarak" du batezbestekorik altuena diferentzia haundiz.

"Euskarak", beste guztiekiko duen ezberdintasuna signifikatiboa da.

Bestalde, "Biak baina euskara gehiagok", Erdararekiko duen ezberdintasuna ere signifikatiboa da.

Beraz, guzti honek esan nahi du: etxean erdaraz egiteak eragin handia duela EABHEM testaren azpittestetan ateratzen den puntuazioan.

Hain zuzen ere, etxean euskararik ez egiteak, puntuazio bajuagoa ateratzeko posibilitate haundiak suposatzen ditu.


Goazen orain, **Gurasoen jatorria** edo jaiolekua aztertzeraz.

Hona hiru posibilitateak:

1. Euskal Herrian jaioak biak
2. Kanpoan jaioak biak
3. Bat kanpoan jaioa

Guk hipotesi bat aurreratuko dugu: ez ote dago, egitan, "etxeko hizkuntza" aldagai horren atzean? Lojikoa litzateke bederen.

GURASOEN JATORRIA



EUSKAL HERRIAN JAIOK: —
KANPOAN JAIKAK: - - -
BAT KANPOAN JAIKAK: ···

GURASOEN JATORRIA – LEXIKOA

GURASOEN JATORRIA	KOPURUA	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)
EUSKAL HERRIAN JAIKAK	186	25,000	3,456
KANPOAN JAIKAK	21	21,809	4,354
BAT KANPOAN JAIKAK	45	23,355	3,656

GURASOEN JATORRIA – I. ERREPIKAPENA

GURASOEN JATORRIA	KOPURUA	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)
EUSKAL HERRIAN JAIKAK	186	36,414	10,157
KANPOAN JAIKAK	21	24,190	10,989
BAT KANPOAN JAIKAK	45	30,555	11,727

GURASOEN JATORRIA – GALDERAK

GURASOEN JATORRIA	KOPURUA	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)
EUSKAL HERRIAN JAIKAK	186	20,543	5,638
KANPOAN JAIKAK	21	14,047	6,576
BAT KANPOAN JAIKAK	45	18,622	6,285

GURASOEN JATORRIA – I. ASMATUA

GURASOEN JATORRIA	KOPURUA	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)
EUSKAL HERRIAN JAIKAK	186	62,220	22,929
KANPOAN JAIKAK	21	35,761	23,607
BAT KANPOAN JAIKAK	45	49,711	23,250

Gurasoen jatorria eta lexikoa

Euskal Herrian jaiotakoren \bar{x} altuena da.

Berton jaiotakoek, besteekiko duten ezberdintasuna, signifikatiboa da.

Gurasoen jatorria eta ipuin errepikapena

Euskal Herrikoen \bar{x} -a, altuena da, gero "Bat kanpoko" taldearena.

Bertakoek, besteekiko duten diferentzia, signifikatiboa da.

Gurasoen jatorria eta galderak

Kanpokoek \bar{x} -a, askoz txikiagoa da. Kanpokoek, beste taldeekiko duten ezberdintasuna, signifikatiboa da.

Gurasoen jatorria eta ipuin asmatua

Berriz ere Euskal Herrikoen Batezbestekoa askoz altuagoa da. Bertakoek, beste biekiko duten ezberdintasuna signifikatiboa da. Beraz, hemengo izatea eta Puntuazio altuak ateratzea loturik dago, nahiz eta horren atzean beste barietate batzuek egon (Etxeko hizkuntza, e.a.).

Gurasoen Ikasketa Maila aldagaia ere jaso genuen, baina, badirudi ez dela hain garrantzitsua, geure estudioan behinik behin.

Hona aukerak:

1. Unibertsitate maila
2. "Batxiller Superior" maila
3. "Batxiller Elementala" maila
4. Ikasketa primarioak

Gurasoen ikasketa maila eta lexikoa


Dauden ezberdintasunak ez dira batere signifikatiboak, errore probabilitatea haundiegia bait da.

Gurasoen ikasketa maila eta galderak

Ez dago ezberdintasun signifikatiborik.

Gurasoen ikasketa maila eta ipuin errepikapena

Ez dago ezberdintasun signifikatiborik.



GURASOEN IKASKETA MAILA – I. ERREPIKAPENA

IKASKETA MAILA	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (\sqrt{s})	KOPURUA
IKAS. PRIMARIAK	32,991	10,685	112
BATX. ELEMENTALA	34,000	10,417	58
BATX. "SUPERIOR"	36,636	12,767	55
UNIB. TITULUA	37,750	9,478	24

GURASOEN IKASKETA MAILA – LEXIKOA

IKASKETA MAILA	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (\sqrt{s})	KOPURUA
IKAS. PRIMARIAK	24,160	3,529	112
BATX. ELEMENTALA	24,086	4,027	58
BATX. "SUPERIOR"	25,145	3,917	55
UNIB. TITULUA	25,291	2,911	24

GURASOEN IKASKETA MAILA – GALDERAK

IKASKETA MAILA	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)	KOPURUA
IKAS. PRIMARIAK	18,821	6,354	112
BATX. ELEMENTALA	19,241	6,255	58
BATX. "SUPERIOR"	21,127	5,463	55
UNIB. TITULUA	21,416	5,106	24

GURASOEN IKASKETA MAILA – I. ASMATUA

IKASKETA MAILA	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)	KOPURUA
IKAS. PRIMARIAK	56,937	22,617	112
BATX. ELEMENTALA	56,741	25,783	58
BATX. "SUPERIOR"	57,963	25,613	55
UNIB. TITULUA	64,833	26,840	24

Gurasoen ikasketa maila eta ipuin asmatua

Ez dago ezberdintasun signifikatiborik.

Guzti honek, zera adierazten digu:

Oro har, GURASOEN IKASKETA MAILA aldagaiak ez duela eraginik EABHEM testaren azpitestean ateratzen den puntuazioan.

Beste aldagai bat:

Aitak eta euskara ikastea

Hona dauden tipologiak:

1. Ez du ikasten
2. Hastapenetan
3. Alfabetatzen
4. Goi Mailan

Aitak euskara ikastea eta lexikoa

Errore probabilitate handia, ez dago ezberdintasun signifikatiborik.

Aitak euskara ikastea eta ipuin errepikapena

Ez dago ezberdintasun signifikatiborik.


Aitak euskara ikastea eta galderak

Ez dago ezberdintasun signifikatiborik.

Aitak euskara ikastea eta ipuin asmatua

Ez dago ezberdintasun signifikatiborik.

AITAK EUSKARA IKASTEN



AITAK EUSKARA IKASTEN – LEXIKOA

AITAK EUSKARA IKASTEN	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)	KOPURUA
EZ DUTE IKASTEN	24,231	3,784	212
IKASTEN DUTE HASTAPENA	24,315	2,944	19
ALFABETATZEN	26,473	2,695	19
EUSKARAZKO TITULUA	28,500	2,121	2

AITAK EUSKARA IKASTEN – I. ERREPIKAPENA

AITAK EUSKARA IKASTEN	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)	KOPURUA
EZ DUTE IKASTEN	33,811	11,117	212
IKASTEN DUTE HASTAPENA	32,631	11,719	19
ALFABETATZEN	41,263	8,924	19
EUSKARAZKO TITULUA	42,000	5,656	2

AITAK EUSKARA IKASTEN – GALDERAK

AITAK EUSKARA IKASTEN	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)	KOPURUA
EZ DUTE IKASTEN	19,485	6,323	212
IKASTEN DUTE HASTAPENA	18,263	5,342	19
ALFABETATZEN	22,526	2,913	19
EUSKARAZKO TITULUA	24,000	0,000	2

AITAK EUSKARA IKASTEN – I. ASMATUA

AITAK EUSKARA IKASTEN	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)	KOPURUA
EZ DUTE IKASTEN	57,990	24,370	212
IKASTEN DUTE HASTAPENA	47,052	19,684	19
ALFABETATZEN	62,578	24,427	19
EUSKARAZKO TITULUA	92,000	31,112	2

Konklusio gisa:

Aitak euskara ikasteak ez du eraginik, EABHEM testaren azpitesten puntuazioetan.

Goazen orain **ANDEREÑOAK JARRITAKO NOTA** aldagaiarekin.

Hona dauden aukerak:

1. Bikaina
2. Oso ondo
3. Ondo
4. Nahiko
5. Nahiko ez
6. Gaizki

ANDEREÑOAK JARRITAKO NOTA eta LEXIKOA

Bikain eta Oso Ondokoek dituzte batezbestekorik altuenak.

Ezberdintasun signifikatiboak; Taldeen artean:


"Gaizki" \leftrightarrow "Nahiko"	"Nahiko ez" \leftrightarrow "Nahiko"
"Gaizki" \leftrightarrow "Ondo"	"Nahiko ez" \leftrightarrow "Ondo"
"Gaizki" \leftrightarrow "Oso ondo"	"Nahiko ez" \leftrightarrow "Oso ondo"
"Gaizki" \leftrightarrow "Bikain"	"Nahiko ez" \leftrightarrow "Bikain"
"Nahiko" \leftrightarrow "Ondo"	
"Nahiko" \leftrightarrow "Oso ondo"	
"Nahiko" \leftrightarrow "Bikain"	

ANDEREÑOAK JARRITAKO NOTA eta IPUIN ERREPIKAPENA

\bar{x} altuena Bikainak.

Ezberdintasun signifikatiboak:

Gaizki \leftrightarrow Ondo	Nahiko ez \leftrightarrow Nahiko
Gaizki \leftrightarrow Oso ondo	Nahiko ez \leftrightarrow Ondo
Gaizki \leftrightarrow Bikain	Nahiko ez \leftrightarrow Oso ondo
	Nahiko ez \leftrightarrow Bikain
Nahiko \leftrightarrow Bikain	



ANDEREÑOAREN NOTA – LEXIKOA

ANDEREÑOAREN NOTA	KOPURUA	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA ($\sqrt{\quad}$)
BIKAIN	30	26,600	2,485
OSO ONDO	15	26,533	1,884
ONDO	122	25,598	2,210
NAHIKO	59	23,033	3,503
NAHIKO EZ	20	19,350	4,258
GAIZKI	6	15,666	4,274

ANDEREÑOAREN NOTA – I. ERREPIKAPENA

ANDEREÑOAREN NOTA	KOPURUA	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA ($\sqrt{\quad}$)
BIKAIN	30	41,466	7,646
OSO ONDO	15	36,666	8,933
ONDO	122	36,327	10,501
NAHIKO	59	31,898	10,093
NAHIKO EZ	20	22,000	8,534
GAIZKI	6	18,000	11,171

ANDEREÑOAREN NOTA – GALDERAK

ANDEREÑOAREN NOTA	KOPURUA	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)
BIKAIN	30	24,100	4,420
OSO ONDO	15	23,866	4,189
ONDO	122	20,450	4,922
NAHIKO	59	18,000	5,711
NAHIKO EZ	20	13,000	5,938
GAIZKI	6	9,333	9,070

ANDEREÑOAREN NOTA – I. ASMATUA

ANDEREÑOAREN NOTA	KOPURUA	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)
BIKAIN	30	64,600	22,473
OSO ONDO	15	72,000	21,833
ONDO	122	61,918	23,137
NAHIKO	59	52,508	22,877
NAHIKO EZ	20	38,050	19,184
GAIZKI	6	21,666	18,768

ANDEREÑOAK JARRITAKO NOTA eta GALDERAK

\bar{x} -rik altuena Bikainak.

Gaizki-koen \bar{x} oso bajua.

Ezberdintasun signifikatiboak:

Gaizki – Nahiko	Nahiko ez – Nahiko
Gaizki – Ondo	Nahiko ez – Ondo
Gaizki – Oso ondo	Nahiko ez – Oso ondo
Gaizki – Bikain	Nahiko ez – Bikain
Nahiko – Oso ondo	Ondo – Bikain
Nahiko – Bikain	

ANDEREÑOAK JARRITAKO NOTA eta IPUIN ASMATUA

Oso ondokoek dute \bar{x} -rik altuena.

Ezberdintasun signifikatiboak:

Gaizki – Ondo	Nahiko ez – Ondo
Gaizki – Oso ondo	Nahiko ez – Oso ondo
Gaizki – Bikain	Nahiko ez – Bikain

Konklusio gisa:

“Aprobatuen” artean egoteak edo, “suspendituen” artekoa izateak badute eraginik, EABHEM Testaren azpitesten puntuazioetan.

Andereñoaren eritziak eta testarenak, gutxi gora behera bat datoz. Goi mailakoek, puntuazio altuagoak ateratzen dituzte.

Nahikotik gora daudenen puntuazioak, bestearenak baino askoz hobeak dira.


Azkenik, ikus dezagun:

AMAK EUSKARA IKASTEA

Dauden aukerak:

1. Ez du ikasten
2. Hastapenetan
3. Alfabetatzen
4. Goi mailan

AMAK EUSKARA IKASTEN



AMAK EUSKARA IKASTEN – LEXIKOA

AMAK EUSKARA IKASTEN	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)	KOPURUA
EZ DUTE IKASTEN	24,217	3,839	184
IKASTEN DUTE HASTAPENA	23,419	3,354	31
ALFABETATZEN	26,037	2,488	27
EUSKARAZKO TITULUA	27,400	2,118	10

AMAK EUSKARA IKASTEN – I. ERREPIKAPENA

AMAK EUSKARA IKASTEN	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)	KOPURUA
EZ DUTE IKASTEN	33,858	11,261	184
IKASTEN DUTE HASTAPENA	30,903	10,096	31
ALFABETATZEN	37,703	9,793	27
EUSKARAZKO TITULUA	45,000	7,845	10

AMAK EUSKARA IKASTEN – GALDERAK

AMAK EUSKARA IKASTEN	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)	KOPURUA
EZ DUTE IKASTEN	19,353	6,350	184
IKASTEN DUTE HASTAPENA	18,580	5,886	31
ALFABETATZEN	21,370	4,430	27
EUSKARAZKO TITULUA	24,000	3,162	10

AMAK EUSKARA IKASTEN – I. ASMATUA

AMAK EUSKARA IKASTEN	BATEZBESTEKOA (\bar{X})	DESBIDERAPEN ESTANDARRA (σ)	KOPURUA
EZ DUTE IKASTEN	58,429	24,353	184
IKASTEN DUTE HASTAPENA	47,161	24,259	31
ALFABETATZEN	59,740	16,621	27
EUSKARAZKO TITULUA	73,500	32,401	10

Amak euskara ikastea eta lexikoa

Goi mailakoek dute \bar{x} -rik altuena.

Ezberdintasun signifikatiboak: Hastapenetan daudenak, Goi mailakoe-kin.

Amak euskara ikastea eta ipuin errepikapena

Diferentzia haundiz Goi Mailakoen \bar{x} -a haundiena da.

Ezberdintasun signifikatiboak:

Goi Mailakoek, Ikasten ez dutenekiko eta Hastapenetan daudenengako.

Amak euskara ikastea eta galderak

Ez dago ezberdintasun signifikatiborik.

Amak euskara ikastea eta ipuin asmatua

Ez dago ezberdintasun signifikatiborik.

Konklusioa:

Amak euskara ikasteak, aitzak ikasteak baino eragin handiagoa du. Hala ere ez da oso nabaria zenbait azpittestetan.

Argi dago beraz, gure estudioaren arabera, eraginik handiena nondik datorren.

Jaso ditugun aldagaien artean (beste batzu ez ditugu jaso). Bi dira inportanteenak, hauraren euskara mailan eragiten dutenak:

1. Etxeko hizkuntza

Etxean euskaraz egiteak, esanahi handia du. Erdara hutsez hitzegiteak oso negatiboki jotzen du umearen euskara mailan.

Dugun mailaketak bestalde, zera diosku:

Etxean zeredozer euskaraz egiteak badu eraginik, hoberena euskara hutsez egitea delarik.

2. Inguruaren hizkuntza

Zona linguistikoa zeharo erdalduna baldin bada, horrek eragin negatiboa du umearen euskara mailan.

Baina hortik gora begiratur, ez da beti gertatzen:

Batezbestekorik altuena – zonarik euskaldunena. Zergatik?

Beste aldagai batzuk ere jokatzen dutelako eta oso inportanteak gainera:

Agian, haundienak, pedagogi arlokoak dira. Gure hurrek... **IRAKASLE BAT DUTE**. Irakasle horren eragina haundia da. Ez oraingo irakaslearena baizik eta orain arte izan dituen guztiena.

Irakasle horien **METODOLOGIA** ere erabat garrantzitsua da; horren arabera emaitzak onak ala txarrak izaten bait dira.

Tamalez, aldagai horiek kontrolatzea oso zaila da eta guk behintzat ez dugu lan hori egin. Badakigu hor atzean dagoela beroien influentzia, baina ezin dugu gehiagorik antzeman.

Baina Pedagogi arloko aldagaiekin jarraituz hona aipatu beharreko beste batzu:

- Gelako haur kopurua
- Gelako euskaldunen portzentaia
- eta abar

Guk ez ditugu azken hauek aztertu, baina bai jaso dugu gure laginak zituen berezitasun batzu (ikus datuen eranskina).

ERANSKINA

ALDAGAIEN PORTZENTAIK

1) ETXEAN EUSKARAZ.....	% 36,90
ETXEAN ERDARAZ.....	% 20,24
HIZKUNTZA BIAK.....	% 42,86
GEH. EUSK.....	% 21,03
GEH. ERD.....	% 21,82
<hr/>	
2) EUSKALDUN ZAHARRAK (Aita).....	% 62,30
EUSKALDUN ZAHARRAK (Ama).....	% 62,69
EUSKALDUN BERRIAK (Ama).....	% 12,69
EUSKALDUN BERRIAK (Aita).....	% 9,92
AITA ERDALDUNAK.....	% 27,78
AMA ERDALDUNAK.....	% 24,62
<hr/>	
3) HEMEN JAIIOAK (Aita).....	% 84,12
HEMEN JAIIOAK (Ama).....	% 84,12
KANPOAN JAIIOAK (Aita).....	% 15,88
KANPOAN JAIIOAK (Ama).....	% 17,86
<hr/>	
4) IKASKETA PRIMARIOAK (Aita).....	% 50,79
IKASKETA PRIMARIOAK (Ama).....	% 64,68
BATXILLER ELEMENTALA (Aita).....	% 21,03
BATXILLER ELEMENTALA (Ama).....	% 23,01
BATXILLER SUPERIOR (Aita).....	% 21,03
BATXILLER SUPERIOR (Ama).....	% 7,14
UNIB. TITULOA (Aita).....	% 7,93
UNIB. TITULOA (Ama).....	% 3,57
<hr/>	
5) EUSKARA IKASTEN (Aita).....	% 16,26
EUSKARA IKASTEN (Ama).....	% 26,98
BATUAZ (Ikasten dutenen artean).....	% 66,05
<hr/>	
6) HASTAPENEAN.....	% 44,68
ALFABETATZE.....	% 43,61
D MAILA.....	% 11,70
<hr/>	
7) Irakaslegoa	
EUSKARAZKO TITULUAK:	
n = 17	
BADUTE.....	% 47,05 (8)
EUSKALDUN ZAHARRAK:	
n = 17	
.....	% 64,70 (11)

8) Metodologia:

Euskara EXTENSIBO + INTENTSIBOA% 76,47 (13)

9) Gelen ume kopurua:

Geletan, 384 ume.

$\bar{x} = 22,58$

25 ume baino gehiago. Seber Altube
Durango
Galdakao

10) Haurrak

JATORRIZKO ERDALDUNAK:

Gernika.....	% 28
Zornotza.....	% 6,81
Durango.....	% 1,66
Trapaga.....	% 100
Muskiz.....	% 100
Balmaseda.....	% 100
Ondarroa.....	% 11,42
Lekeitio.....	% 12,12
Galdakao.....	% 25,88

GUZTIRA, ERDALDUNAK: % 30,98

Gure inkesten bidez bildutako datuak, portzentaietan jarri ditugu, interesgarriak direlakoan.

Kasu batzutan, ez ditugu datu hauek analisirako erabili, baina beraien garrantzia begibistakoa da.

Portzeintai hauek, noski, gure laginan parte hartu duten haur, guraso eta irakasleei dagozkie.

1. Etxeko hizkuntza

Gehienek, hizkuntza bakar bat erabiltzen dute etxean, baina bi erabiltzen dituztenen kopurua ere ez da txantxetakoa. Izan ere ETXE ELEBIDUN horiek uste baino konplexuagoak izango dira.

2. Jatorrizko hizkuntza

Guk aztertutako gurasoen gehiengoa euskaldun "zaharra" da.

"Euskaldun Berria" naiz, diotenean, auskalo zer esan nahi duten.

Asko ziur aski, ez dira euskaraz mintzatzeko gai.

3. Gurasoen jatorria

Oso nabaria da Ikastoletako guraso gehienak bertokoak direla.

Ikastolak ez dira “kanpotarren” ikastetxeak hain zuzen.

4. Ikasketa maila

Guraso gehienek ez dute eskola Primarioa baino ezagutzen. Kultur mailaren adierazpide bakarra ez bada ere, interesgarria da.

5. Euskara ikastea

Guraso gutxik ikasten du euskara, erdaldunak nahiz euskaldunak izan.

Amek, aitek baino gehiago ikus daitekeenez. Hala ere badirudi gurasoen euskalduntzeak eta alfabetatzeak ez dutela ondo funtzionatzen.

6. Euskara ikastea

Ikasten dutenen artean, gehienak hasten edo alfabetatzen ari dira.

7. Irakasleen datuak

a) EUSKARAZKO TITULUA, irakaslearen gaitasunaren ezaugarri bikaina ez bada ere, zerikusirik duelakoan gaude.

Horra hor, gure irakasleak ez direla uste bezain “titulodunak”.

Hau, Eskolaurrearen “norma” bihurta da askotan, tamalez, baina gauzak aldatzen ari direla diote. Hala bedi.

b) EUSKALDUN ZAHAR-BERRIA: Guk aztertutako irakasle gehienak, euskaldun “zaharrak” dira.

8. Metodologia

Hau ere, irakasleari lotutako aldagai bat da.

Errazteko asmotan, bi kategoria bereizi ditugu:

a) EUSKARA EXTENSIBOKI LANTZEA: Hau da, euskaraz aritzea baina euskara bera ikasgai berezia izan gabe.

b) EUSKARA EXTENSIBOKI + INTENSIBOKI: euskaraz aritzeaz gain, euskara bera lantzea, saio berezitan.

Ikus daitekeenez, mundu guztiak –gehienek bai– ez du euskara bera lantzeko saio bereziaren premiarik ikusten.

Gehienbat, herri euskaldunetan gertatzen da gainera. Zer eragin izan dezake honek?

9. Ume kopurua gelan

Hainbat istilu sortu izan duen gaia dugu hau, eta oraindik sortuko dituenak dudarik gabe.

Egia esan, aztertu ditugun ikastola gehienetan eta zorionez, haur kopuru egokiak dituzte (tranpeatzen ala ez, ez dakigu).

Kopuru horiekin, lan ederki egin daiteke.

10. Haurren jatorriko hizkuntza

Nabaria da, "D" ereduko ikastolen arteko ezberdintasuna.

Batzuek, ez dute ia erdaldunik eta beste batzutan, denak erdaldunak dira, eskualdearen arabera, jakina.

Pare batek edo, zona nahiko euskaldunetakoak izanik, erdaldun kopuru dexente dute gelan. Beste batzutan, badirudi nolabaiteko "selektioz" lan egiten dutela. Honen atzean dauden problematikak oso ezberdinak dira. Demandaren araberrakoak eta abar.

KONKLUSIO GISA

Bizkaiko Ikastoletako haurren sailkapen bat lortu dugu, duten EUSKARA MAILAREN ARABERA hain zuzen.

Ikus daitekeenez ere, aldagai inportante batzuren pisua aztertu da.

Begibistan dago, zenbat eta baldintza faboragarriagotan egin euskalduntzea, lortzen den emaitzak ere hobea dirudiela.

Hala ere, tartean dago "pedagogiaren" eragina eta antzematen denez, eragin hori, izugarria izan daiteke, gauzak ondo eginez gero.

Eskualde ez hain euskaldunen emaitzak lekuko.

Gure ustez, Eskolarekin –inolz ere– aski ez bada ere, eskolaren lana oso inportantea da eta hala erreflejatzen da puntuazio batzutan.

Oso interesgarria litzateke, B eta A eredutako haurren datuak edukitzea eta gure baremoarekin konparatu ahal izatea.

Askoz bajuagoak izango liritekeela susmatzen dugu, gehienetan, bederen.

Test honen erabilpenaz ere, zerbait esango dugu.

Ikerlan bezala, balio bat duelakoan gaude. Askotan, "teoria" hutsean hitzegiten da euskalduntzeaz eta inork ez du datu zehatzik aportatzen.

Gauza bat edo bestea defendatzen denean, datuak eskaintzen ahalegindu behar dugu. Lan honek, ohitura hori hedatzen lagundu nahi zaituzte.

Hemendik ere, gure Irakaskuntzan martxan dauden eredu linguistiko-koen eta metodologiaren ikerketa egin dadila eskatzen dugu eta gero, euskararen onerako erabakiak hartu.

Bigarrenik, auzi ezagun batetan, test hau lagungarri eta baliotsua gerta dakizuekela uste dugu.

Eskolaurrea bukatzean, ez dakigu, jakin, askotan, haur horiek irakurketa-idazketa euskaraz egiteko gai izango diren ala ez.

Gaitasun horren oinarrian, duten euskararen ezagutza dago.

Batzuek, erraz garbitzen dute auzi, hau, alde aurretik, erdaldunak baldin badira, erdaraz egin behar dutela aginduz. Berdin zaie, haur horrek euskara asko dakien ala ez, motibatuta dagoen ala ez.

Beste batzuek, nahi eta ez euskaraz egitera behartzen dituzte, era horretara haur problemariko mordoak sortuz.

Baina askok, auzi honetan erabakitzeko, argibideak, tresna lagungarriak nahi genituzke.

EABHEM testak, laguntza bat eman diezaiguke. Ez da gutxi izango, geneuzkan datuetatik aparte, zein euskara maila duen haurrak jakitea.

Hala ere, KONTUZ!

Ez da nahikoa testak ematen digun datua. Testak desmitifikatu behar ditugu. Ez dute miraririk egiten. Beste erreferentzi mugatu bat besterik ez dute suposatzen.

Bere datua, Irakaslearen esperientzia eta gurasoen aportazioari loturik, erizpide onak izan daitezke erabagitzeko orduan.

Erabil ezazue test hau bere ahalmenen barruan, ez beste munduko gauzarik eskatu. Testa berez, ez da ez ona ez txarra. Erabiltzen duenak zertarako erabiltzen duen ikusi behar du.

Zuen zerbitzuan egon dadin egina da eta ez alderantziz.

TAULAK

E.A.B.H.E.M.

BAREMOA

I. LEXIKOA

P.Z.		P.T.
1	4
2	8
3	12
4	16
5	20
6	24
7	28
8	32
9	36
10	40
11	44
12	48
13	52
14	56
15	60
16	64
17	68
18	72
19	76
20	80
21	84
22	88
23	92
24	96
25	100
26	104
27	108
28	112
29	116
30	120

2. I. ERREPIKAPENA

P.Z.	P.T.	P.Z.	P.T.	P.Z.	P.T.
1 3	31 93	61 183
2 6	32 96	62 186
3 9	33 99	63 189
4 12	34 102	64 192
5 15	35 105	65 195
6 18	36 108	66 198
7 21	37 111	67 201
8 24	38 114	68 204
9 27	39 117	69 207
10 30	40 120	70 210
11 33	41 123	71 213
12 36	42 126	72 216
13 39	43 129	73 219
14 42	44 132	74 222
15 45	45 135	75 225
16 48	46 138	76 228
17 51	47 141	77 231
18 54	48 144	78 234
19 57	49 147	79 237
20 60	50 150	80 240
21 63	51 153	81 243
22 66	52 156	82 246
23 69	53 159	83 249
24 72	54 162	84 252
25 75	55 165	85 255
26 78	56 168	86 258
27 81	57 171		
28 84	58 174		
29 87	59 177		
30 90	60 180		

3. GALDERAK

P.Z.		P.T.
1	8
2	16
3	24
4	32
5	40
6	48
7	56
8	64
9	72
10	80
11	88
12	96
13	104
14	112
15	120
16	128
17	136
18	144
19	152
20	160
21	168
22	176
23	184
24	192
25	200
26	208
27	216
28	224
29	232
30	240

4. I. ASMATUA

P.Z.	P.T.	P.Z.	P.T.	P.Z.	P.T.	P.Z.	P.T.
1 2	31 62	61 122	91 182
2 4	32 64	62 124	92 184
3 6	33 66	63 126	93 186
4 8	34 68	64 128	94 188
5 10	35 70	65 130	95 190
6 12	36 72	66 132	96 192
7 14	37 74	67 134	97 194
8 16	38 76	68 136	98 196
9 18	39 78	69 138	99 198
10 20	40 80	70 140	100 200
11 22	41 82	71 142	101 202
12 24	42 84	72 144	102 204
13 26	43 86	73 146	103 206
14 28	44 88	74 148	104 208
15 30	45 90	75 150	105 210
16 32	46 92	76 152	106 212
17 34	47 94	77 154	107 214
18 36	48 96	78 156	108 216
19 38	49 98	79 158	109 218
20 40	50 100	80 160	110 220
21 42	51 102	81 162	111 222
22 44	52 104	82 164	112 224
23 46	53 106	83 166	113 226
24 48	54 108	84 168	114 228
25 50	55 110	85 170	115 230
26 52	56 112	86 172	116 232
27 54	57 114	87 174	117 234
28 56	58 116	88 176	118 236
29 58	59 118	89 178	119 238
30 60	60 120	90 180	120 240

(Jarrai hurrengo orrialdean)

P.Z.		P.T.
121	242
122	244
123	246
124	248
125	250
126	252
127	254
128	256
129	258
130	260
131	262
132	264
133	266
134	268
135	270
136	272
137	274
138	276
139	278
140	280
141	282
142	284
143	286
144	288
145	290
146	292
147	294
148	296
149	298
150	300

P.Z.		P.T.
152	304
153	306
154	308
155	310
156	312
157	314
158	316
159	318
160	320

MAILA

	<u>P.T.</u>
OSO ONA	605
ONA	536
NAHIKOA	440
BEHEKOA	263
OSO BEHEKOA	0

BIBLIOGRAFIA

1. **Jean Guy Savard.** *"Bibliographie analytique de tests de Langues ANALITICAL BIBLIOGRAPHIE OF LANGUAGE TESTS"* Universite Laval. Quebec. Canada 1977.
2. **F. Calvo.** *"Apuntes de Estadística Aplicada. a la Sociología"*. Universidad de Deusto.
3. **J. Seoane.** *"Psicología Matemática I"*. UNED. Ministerio de Educación y Ciencia. Madrid 1982.
4. **N.M. Downie; R.W. Heath.** *"Métodos Estadísticos Aplicados"*. Ed. del Castillo. Madrid 1983.
5. **J.P. Fenelon.** *"Qu'est-ce que l'Analyse des Données?"*. Ed. Lefonen. París 1981.
6. **K. Fernández.** *"Estatistikaren Hastapenak"*. Udako Euskal Unibertsitatean. Bilbo 1983.
7. **ESKOLAURREKO EUSKARAREN PROGRAMAKUNTZA.** Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila - 1981.
8. **ESKOLAURREKO ORIENTABIDEAK.** Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila - 1981.

HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

EUSKARA ZERBITZUA

Argitalpenak

GLOTODIDAKTIKA-LANAK:

1. Hizkuntzen Irakaskuntza: Topikoak eta Metodologiak
2. Hizkuntzen Irakaskuntza: Gramatika Ariketak
3. Hizkuntzen Irakaskuntza: Mailaketa Gramatikala
4. Hizkuntzen Irakaskuntza: Neurpideak (prestatzen)
5. Hizkuntzen Irakaskuntza: Zenbait Artikulu (prestatzen)
6. Haurrak Euskalduntzen Giñolaren bidez. Kukubiltxo Taldea
7. Euskararen Gaitasun Agiria: Programa
8. Euskaltzaindiak Batasunerako eskaini dituen erabakiak
9. Haurrak euskalduntzen Giñolaren bidez II. Itzaropena M. de Lezea
10. Ipuin zahar eta berriak. Lurdes Iriondo
11. Jolasean. Imanol Urbietta
12. Amonaren Ipuinak. Enkarni Genua
13. Ipuin gehiago. Lertxundi - Lukas - Keinu - Maskarada
14. Eskolarako ipuinak eta txotxongiloak. Itzaropena M. de Lezea
15. Hizkuntz Jolasak.
16. E.A.B.H.E.M. Euskara maila neurtzeko testa.

HIZKUNTZ-PRESTAKUNTZA:

1. Bizkaieraren idatzizko arauak

eima

katalogoa

Eibarko Hezkuntza Esparrua

943.20.27.48

20600 EIBAR



EX14041027

Eskolaurre bukaerako liburua eskola-maila

EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN-ZERBITZU NAGUSIA
SERVICIO CENTRAL DE PUBLICACIONES DEL GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE LA PRESIDENCIA